

GUaiXe.net



Oporretan gaudelako, datorren ostiralean ez da Guaixe astekaririk ezta Beleixeren irratsaioirik egonen

Munduko aizkolari azkarrenaz ein den erabakiko da igandean **Arbizun**. 70 aizkolari baino gehiago ariko dira, **Axioren** omenez



Kirolak >> 11



Sexu-indarkeriaren kontrako mezua >>7



Mendinueta eta Barandalla aske >>9



Euskaldunak biltzeko ekitaldiak Irurtzunen >>15



Euskararen alde egitera deitu du EHEK >>5



Nazabalen erakusketa Altsasun >>11

Hartzekodunak Inasako plana aztertzen >>8



Kulturarteko bitartekaritzan trebatzen >>9

Urteko egun guztietan, euskaraz

Kartelekin argazkiak egin eta gero haiek jartzeko gonbitea >>5




Ovejerorendako bi urte >>9


EUSKARAK 365 EGUN

noiznahi, nonahi orain, hemen

365egun.eu

ZORION agurrak  Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu  Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA
Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Lur Beltza Zia
ZORIONAK maitte!
Asko maite duzugu!

Haitz
ZORIONAK Haitz!! Muxu eta besarkada haundi bet denon partez, pottolo!! Oso ongi pasa.

Irati Irigoien Zubiria
ZORIONAK eta muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partetik!

Iraia
ZORIONAK Iraia!! Oso ongi pasa zure zor-ion egunean. Muxu haundi bat zure lehen-gusuaren partez.

Eneko
ZORIONAK Eneko!!

Ihalar Larraza Mendia
ZORIONAK, ongi pasa eguna eta muxu asko familiaren partez!

Saioa
ZORIONAK aitatxo, amatxo eta Nagorearen partez.

Mario
Aupa Mario!! Trebe zara hainbeste urterekin... Erdia duzula badirudi ere... Muxu handi bat! Amaia, Ainhoa eta amatxo. ZORIONAK!



Urrezko ezteiak, ZORIONAK!! Segi aurrera diamantezko ezteiak lortu arte!!!

Urteurren berezi honetan, ZORIONAK ABUELOS!!!!

azaroak-abenduak **29-12**

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika
Elortz ibarreko abesbatza. Azaroaren 30ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.
Derailed+Patxuko Nice+Kaos Urbano. Azaroaren 30ean, larunbatean, 23:00etan Arbizuko Arbi Bidea elkartearen.
Elkarrekin abesbatza. Abenduaren 3an, asteartean, 13:00etan Irurtzungo elizan.
Erkudengo Ama abesbatza. Abenduaren 3an, asteartean, 13:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Antzerkia
Klownstrofobia mendian. Abenduaren 6an, ostiralean, 18:00etan Bakaikun.

Zurrunmuru antzerki taldea.

Pailazoak
Pirritx, Porrotx eta Mari Motos. Bizipoza. Abenduaren 3an, asteartean, 17:00etan Irurtzungo kiroldegian. **Aizpea.**

Ipuin kontalaria
Hamaika kolore eta zirriborro bat. Azaroaren 29an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Eñaut Gorbea.**

Bertsolaritza
Julio Soto eta Eneko Lazkoz. Azaroaren 30ean, larunbatean, 22:00etan Bakaikuko elkartearen. **Bakaikuko Gazte Asanblada.**

Proiektzioa
Urbasa eta Orobeko sakontasunak. Abenduaren 7an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Zinema
Una pistola en cada mano. Azaroaren 29an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.
Las brujas de Zugarramurdi. Azaroaren 29an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 1ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Epic. Abenduaren 1ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.
El mayordomo. Abenduaren 6an, ostiralean, 20:10ean eta abenduaren 8an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Zipi y zape y el club de la canica. Abenduaren 8an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Dokumentalak
Zitzadak. Abenduaren 5ean, ostegunean 22:00etan Bakaikun.

Literatura
Irakurle taldea. Abenduaren 12an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Hizketagaia: Jon Arretxeren 19 kamera.**

Mendi irteera
Aixita. Abenduaren 1ean, igandean, goizez. **Irurtzungo Iratxo mendi taldea.**

Txirindula irteerak
Sakana ibarra. Abenduaren 1ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Burundako mendi bizikleta taldea. 50 km.**
Deierri. Abenduaren 8an, domekan, 7:30ean Altsasuko Burundako mendi bizikleta taldearen bajeeratik. **40 km.**

Irteerak
Orba ibarra, Baldorba. Abenduaren 6an, 9:00etan Irurtzungo autobus geltokitik. **Bazkaria Garinoainen. Aizpea.**

Erakusketak
Dekorazio arteak. Azaroaren 29ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta, domeketan, 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren tailerra.**

Zigilua, prozesua eta interakzioa. Abenduaren 1etik 23ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta, domeketan, 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Itziar Nazabal.**

Zer egiten duzu etxean? Abenduaren 22ra arte, zabalik dagoenetan, Altsasuko lortia kultur guneko ezkaratzean.

Hitzaldiak
Yosemite eskalatzeko. Azaroaren 29an, ostiralean, 19:00etan Bakaikun. **Hizlaria: Joseba Arlegi.**

Sardiniako askapen mugimendua. Abenduaren 29an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Gure Etxean. **Askapena.**

¿Como ayudarles con las tareas escolares si no sabemos euskara? Abenduaren 10ean, asteartean, 15:00etan Altsasuko Zelandi ikastetxean. **Iñaki Eizmendi. Mank.**

Tailerrak
Komiki tailerra. Abenduaren 7an, ostegunean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Bezperara arte izen ematea. +12 urte.**

Bestelakoak
Arbizuko Gazte eguna. Azaroaren 30ean, larunbatean, 10:30etik aurrera.
Ping-pong lehiaketa. Abenduaren 3an, asteartean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Iyoteak indartzeko batzar irekia. Abenduaren 11n, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko udaletxean.

Deialdiak
Euskal Herriko eskubide sozialen kartaren aurkezpena. Azaroaren 29an, ostiralean, 18:00etan Lakuntzako udaletxean; abenduaren 6an, ostiralean, 18:00etan Arbizuko udaletxean; abenduaren 11n, asteazkenean, 20:00etan Uharteko udaletxean eta abenduaren 12an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 29an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztín. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Abenduaren 2an eta 9an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxean.
Hipotekek kaltetutakoan Plataforma. Abenduaren 6an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean, bilera.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net
Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA: albisteak, kirolak, EHEko kideak, Lizarragako adinduei omenaldia, ikasleak sexu indarkeriaren kontra, Andra Mari ikastolaren eraikin berria, Bakaikuko gaztain mozte eguna...
Esataria: Eneida

Hijos de Boikoetxea

Tel. 948 467 317 - 948 562 341 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU



*Aurtengo eskaintza:
Kalitate handiko produktuekin
zure gabonetako opariak, loteak
edo saskiak zuk zeuk egitea.
Zatoz gure ardotegia ezagutzera!*

**Gogoratu, Katealde artisau produktuak eta klarisa
mojen turroiak ditugula. Cava, champagne eta
ardoetan merkatuan dagoen hoberena aurkituko duzu.*



editoriala

Euskarak
365 egun

Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian euskaraz bizi, aldarrikatu, plazaratu, izan eta ospatzeko deia egin dugu Euskaltzaleen Topagunetik, herriz herri antolatuta dauden euskaltzaleen elkartetatik.

Aurten, Euskarak 365 Egun dituela aldarrikatu nahi dugu, euskaraz nonahi eta noiznahi aritu nahi dugula, baina orain eta hemen nahi dugula euskaraz bizi. Euskaraz bizitzeko hautua egin dugunon aldarrikapena da, baina aldarrikapenetik haratagodoana, ekimenetik eta antolakuntzatik asko duena. Euskaltzaleon hautua, hautu antolatua izan da urtetan; antolatzeke izan dugun bisioa hizkuntza komunitatearen garapenaren oinarrietako bat izan da: jakin dugu biltzen, elkarren arrimuan eragiten, hedabideak sortzen, euskarazko kultur gintzari bizia ematen, euskarazko hezkuntza antolatzen, aisialdia euskaraz bizitzeko guneak lortzen, helduak euskalduntzeko sarea osatzen eta transmisio mekanismoak martxan jartzen. Jakin dugu, batez ere, kolore antzeko euskaltzaleentzat euskaltzaleen oinarritutako espazio askeak egituratzen. Hautu hori egin dugun euskaltzaleok osatzen dugu euskararen herriaren muiña eta erantzukizunez jokatzeko jarraitzea dagokigu.

Gure esku dago euskararen herria osatzen jarraitzeko baldintzak sortzea. Euskaltzaleon ekarpena behar beharrezkoa izan goda etorkizunean ere, inoren zain egon gabe, jarraitu behar dugu espazioak sortzen eta geureganatzen, harreman sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzen, botere guneetan eta inguru hurbilan eragiten. Euskaltzaleen esku dago euskararen herriaren garapena: herrian antolatzen diren euskaltzaleen esku, administrazioetan erabakiak hartzeko ardura duten euskaltzaleen esku, harreman sareak ehuntzen diharduten euskaltzaleen esku, enpresatan lanean eta aginte organotan ari diren euskaltzaleen esku, zure eta gure esku.

Plazara irten gaitezen, herria, kalea, plaza, euskaraz bete dezagun. Bizi gaitezen euskaldun eta euskaltzale, geu izateko euskararen herrian.

Bierrik fundazioa
(Euskaltzaleen Topagunea)



Eduardo Galan

Mozal legea

“Zer moduz? Ba, ezin gara kexatu. Beraz, ondo doakizue? Ez, ez. Ezin garela kexatu esan nahi nuen.” Herritarren Segurtasunerako Aurreproiektuaren zirriborroa, lehengoko “Corcuera” edo “Ateostikada” eta gaurko “Fernández” edo “Mozal” legeak, Estatu-ko Barne eta Justiziazko Ministerioek Moncloa-ko labeetan egingakoa, gizarteari zerbizatzeko prest dauka gure gobernuak.

Honetan, orden publiko, erlijio, kirol edo beste entretenimendu gertaeretan, eta Kongresuko, Senatuko, Autonomi legebiltzar edo Goreneko Epaitegien aurrean, administrazioari komunikatu

gabeko kontzentrazioak antolatzen badira, nahiz eta momentu hartan hauek ez izan jarduera, arauhauste hau oso larri bezala agertzen da non, partehartzaileei edo antolatzaileei 30.001 €-tik 600.000 €-ra isuna jarri dakieke. Kasu praktikotik: Abuztuak 15, goizeko 03:00-tan ERE batean murgildutako langileen manifestazio bat Nafarroako Parlamentuaren aurrean.

Halaber, arau-hauste oso larritzat agertuko da ere Estatu-ko Segurtasun Indar, bere kide edo hauen esku-hartzeen irudi grabaketak kamaraz edo mugikorrez hartzen badira interneten, adibidez, zabaltzeko non polizien oho-

astekoa

barrutik
kanpora

Azaroa

Txakurrak darabiltzate bisita arakatzeko, umeei izua sortaraziz/Atxilotuak, kartzelatuak, gose grebak (Sevillan 33 egun gaur), entregak, aske 8/Bizi-baldintza ankerrak, tratu iraingarriak, kolpeak/Istripu berri bat/Iheslari bat hil da/Harrika egin diete Murtzian familiartekoei, bi aldiz astebetean / 30 urte bete dira Lasa eta Zabala bahitu, torturatu, tiroz hil eta kare bizian ehortzi zituztela, ... eta abar luzea. Bisita egin zitzaizen Sakanako iheslariari. Urtarrilaren 13an marea urdinak hartu behar du Bilbo.

Poxtiña eta Bautista: Ongietorri beroena. Asier: Aurreko ikasketak bukatu ondoren Pedagogia karrerari heldu dio. Oihan: Aita bilakatu da berriki, baimen zain dago semea ezagutzeko: Zorionak!. Juan Ramon: Bete du Frantziako kondena, prebentibodute orain preso Espainiako kondena betetzera ekarri arte. Urtebetetzeak: Bautistak, Luisek eta Jon Gurutzek abenduan, Unai urtarrilean. Zorionak!

Estrasburgoko epaia izan da notizia: Parot dotrinarekin egin zuten astakeriaren ondoren, lotsa, gorrotoa eta mendekuegarrira irentsiz, Espainia behartuta aurkitu da preso kalera. Trikimailu guztiekin ahalgindu dira kanporatzea atzeratzen. Oraindik horretan diraute, lehen egunetik behar zuten denak aske. Miserablea da kartzelako zigor baten aitzakiaz bi presoren askatzea zenbait egunez atzeratzea. 33 ziren askatuak idazten dugun orain, aste honetan izanen ahal dira gehiago, tartean Poxtiña eta Bautista. 30 inguru geratzen dira legez kontra oraindik kartzelan dirautenak. Mehatxu latzekin debekatu dituzte mota guztietako ongietorriak. Ez digute poza lapurtuko. Ongietorri.



Etxerat

hara zer dien

Zer aukeratzen duzu zure bizitzarako?

Gaur metafora interesgarri bat uzten dizuet eta espero dut ondorio garrantzitsuak ateraraziko dizkizuela.

Bi otso.

Goiz batean Cherokee tribuko buruzagiak bere bilobari hitz egin zion bizitzari buruz. Esan zion: borroka handi bat gertatzen ari da nire barruan, borroka beldurgarri bat, bi otsoen arteko borroka.

Bat gaiztoa da: haserre, tristura, jeloskortasuna, ezkortasuna, oilarkeria, kulpa, gezurra, nagusitasuna, gutxitasuna, beldurra, harrokeria eta berekoikeria da.

Bestea, ona da: poztasuna, bakea, amodioa, umiltasuna, laguntasu-

na, itxaropena, ontasuna, eskuzabaltasuna, lasaitasuna eta fedea da.

Bilobak minutu batez pentsatu ondoren aitonari galdetu zion: Zein otso ari da irabazten? Cherokee zaharrak erantzun zion: zuk elikatzen duzuna.

Eta zu zein otso ari zara elikatzen zure bizitzan?

Gelditu zaitetz metafora honetaz pentsatzen.

Egunean zehar zenbat aldiz aukeratzen duzu okerreko otsoa elikatzea?

Aste honetan zure burua behatzerara gonbidatzen zaitut. Normalean gure komunikazioak beti egin duguna egiten jarraitzeko dugun modua islatzen du, geure burua-

ri eta besteei esplikazioak ematen dizkiegu gure egoerari buruz, horrela gure jarrera geldia eta egonezina justifikatuz; azken finean, ez dugu pausorik ematen gauden konfort gunetik ateratzeko nahiz eta arriskutsua eta kaltegarria izan gauden gunea.

Nire galdera: Horrela nahi al duzu gauzak aldatzea zure bizitzan?

Egunero egiten da zoriontasunera eramaten zaituen bidea, nahi duzun ongizate egoerara. Beraz, egunero aukeratu behar duzu zein otso elikatu, zeren eta bizitzan beti daude egoerak, gertaerak edo erlazioz gaituen otsoa aukeratzea erraztuegiten digutenak. Hala ere, zure eskuetan dago gauzak aldatzea zure bizitzan, zuk zure kabuz aukeratzen baduzu.

Ana Morales,
Coach Profesional Certificado
www.anamoralescoach.com
www.essencoaching.com

gutunak

Mila esker

Mª Cruz Mundiñano Orayen eta Arturo Carreño Mundiñano, Anfaseko boluntario eta laguntzaileak

ANFAS fundazioak aurreko astean antolatutako “Elkartasun pintxoak” ekimenean parte hartzeagatik. Mila esker, Altsasuko Ake-larre eta Kaixo tabernei. Mila

esker, Etxarriko Leku Ona tabernari eta Aldaz harategiari bere txistorra goxoak emateagatik. Mila esker, zuri, pintxoak gozatu duzun horri.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburordetza

FILIPINETARAKO LAGUNTZA: Altsasuko Udalak aho batez erabaki zuen herenegun Filipinetako tfoiak kaltetu dituen pertso- nei laguntza emateko 2.000 euro bidera-

tzea. Diru-laguntza hori Nafarroako DYA erakundeari emanen zaio, berak kudeatu dezan. Hara lau kide bidali ditu.

sakanerria >>

>>

Durangorako bidean

Halaxe jarriko dira sakandar asko abenduaren 5etik 8ra. Guztiak ere Durangoko Azokaren 48. edizioa izanen dute helmuga. Landako erakustazokan 122 parte-hartzailek jarritako 238 standetan 353 nobedade izanen dira ikusgai. Haien artean, esaterako, Castillo Suarezen *Erikaren ttiliak* (2013, Aizkorri), Dora Salazarren *Bizkaia emakumeen begiradan* eta Jon Arretxeren *612 €* (2013, Erein) liburuak edo Hesian taldearen zuzeneko diskoa opatzeko aukera izanen da.

Durangora joaten den bisitariak Azoka Hiriarekin topo egingen du. Izan ere, Landakotik Durango guztira zabaldu da azoka eta hiriko hainbat espazio kultura eskaintzez betekodituzte. Horrek programazioa aberastea ekarri du. 700 metroko tartean, 5 minutuko paseoa eskal kulturaren arlo eta diziplinak ezagutzeko ibilbidea proposatzen du aurten azokak.

LANDAKOTIK DURANGORA

Landako erakustazokan, ohi bezala, liburu eta diskoak opatzeko aukera izanen da. Erakustazokan sartu eta eskuinean Kabi@n egonen da, kultura digitalaren plaza. Erdi partean, berriz, Areto Nagusia (euskal kulturaren zabalkunderako gunea). Aldamenean Saguanbara izanen da (familia osoari eskainita), Plateruena ondoan (kontzertuak). Trenbidea zena zeharkatuta Ahotsenearekin topo egingen du bisitariak (sortzaileek aurkezpenak egiten dituzten espazioa). Zugaza zinematik irudie- nea hartuko du, euskarazko zine- magintzaren erakusleioa. Eta han bertan dago artisau azoka ere. Aurrera eginez eta ibaia zeharkatu ondoren, San Agustin kultur gunean Szenatokia izanen da, euskarazko antzerkigintzaren eremua.

SAKANA

Euskaltzale, plazara!

Euskaraz bizitzeko aukerak sortzen segitzeko deia luzatu zaie euskaltzaleei

Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Egunaren kontura Euskaltzaleen Topaguneak *Euskarak 365 Egun* lema duen kanpaina martxan jarri du, Sakanan Irurtzango Aizpea euskara taldeak eta Bierririk fundazioak garatuko dutena. *Euskarak 365 Egun* ekimenaren bidez euskaltzaleei plazara ateratzeko deia egin nahi izan dute antolatzaileek.

Euskararen normalizazioan euskaltzaleek egindako lanaren aldarrikapena egin nahi du Topaguneak. Gainera, etorkizunean



Kartelarekin argazkia egin dute makina batek dagoeneko.

ere hizkuntzaren normalizazioari bultzada berri bat emateko deia egin die euskaltzaleei, bakoitzak

bere lekutik (euskaltzale elkartetik, bestelako gizarte mugimendutatik, erakundetatik edo enpre-

Altsasu

“Euskaraz bizitzea desobedientzia bada desobedienteak izango gara”

Duela bi urteko EHE-ko *Ezabatu eta euskaraz bizi!* ekimenean parte hartu zuten Itziar Claverrek eta Haizea Ramirez de Aldak. Foruzaingoak identifikatu zituen eta “irregularitasunez” beteriko epaiketa ondoren trafiko seinaleak ezabatzeagatik 6.000 euroko isuna eta bi eguneko etxe lokalizazio iraunkorra betetzera zigortu zituzten. Claverrek eta Ramirez de Aldak Gure Etxea eraikinean pasa zuten “zigorraren” 48 orduak, baina euskaraz bizitzearen aldarrikapena bihurtu zuten epaia. “Zigor honek ez gaitu kikildu, ez du gure jarrera apur bat ere higatu”.

Epaiari buelta eman eta euskaraz bizitzeko hautua hedatzen jarraitzeko erabili dute zigorra



Elkartasuna eta euskaraz bizitzeari “zigorrik ez” aldarrikatu zen. ERKUDEN RUIZ

Claverrek eta Ramirez de Aldak. Ostiraleko gauerdian Gure Etxean sartu ziren eta domeka gauerdian atera ziren. 48 ordu horietan “ez gara espaloitik jaitziko” aldarrikatzeko erabili zuten. Elkartasun zeinuak ez ziren falta izan. Larunba-

tean bertso bazkarian 70 lagun bildu ziren eta arratsaldeko Euskaraz bizitzeari zigorrik ez. Ezabatu eta euskaraz bizi! leloa zuen manifestazioan 300 bat pertsona bildu ziren. Manifestazioa akaberan Claver eta Ramirez de Alda Gure Etxe-

Editoriala

Laugarren orrian dago.

satatik) euskaraz bizitzeko aukerak sortzen segitzeko deia.

Sakanarako deia

Gaurko Guaixe astekariaren ale bakoitzean *Euskarak 365 Egun* ekimeneko kartela banatu da. Aizpeatik eta Bierriketetik dei bikoitza egin zaie sakandarrei. Batetik, kartela egoki jotzen duten tokian jartzeko: balkoian, lantokian, ikastetxean... Hori egin aurretik kartelarekin argazki bat egin eta www.365egun.eu atarira bidaltzea proposatzen da. Urteko egun guztietan euskaraz bizi nahi duten komunitate euskaltzalearekin bat egiteko gonbitea hain zuzen.

ko balkoira atera ziren eta “espaloian tinko jarraituko” dutela azpimarratu zuten. Gizartea bide horretatik urratsak ematera deitu zuten: “Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasa behar gara”. Euskaldun eta euskaltzale “pasiboren figura” ez datorrela bat haiekin gaineratu zuten.

Egun “arraroak” izan ziren, Claverren hitzetan, baina “gelditu gabe” egon ziren eta ez zuten han egotearen sentzaziorik izan. Itxialdia hasi aurretik hainbat ekimen antolatuta zituzten, baita “atxiloaldian” ere. Larunbateko manifestazioaren ondoren pintxo poteoa, kontzertuak eta karaokea izan ziren. Igandean photoshop ikastaroa eta Eneko Garaialde *Desobedientziatik intsumisiorantz bide bat* hitzaldia eman zuen. Arratsaldean elkarretaratzea egin zuten. Asteburuan izandako babeseta eta jendearen parte hartzea goraiatu zuten biek.

48. DURANGOKO AZOKA kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra

www.durangokoazoka.com

ANTOLATZAILEA



BABESLE NAGUSIA



BABESLE PUBLIKOAK



BABESLE PRIBATUAK



@durangokoazoka

SAKANA

Andra Mari ikastolaren iragana eta geroaren arteko lokarria

Eraikin berriaren lehenengo harria jarri dute

Duela 44 urte Etxarri Aranazkolau "zorok" haien seme-alabendako euskarazko hezkuntza nahi izan zuten eta proposamen hori Andra Mari ikastolan gorpuztu zen. Larunbatean ikastola berriaren lehenengo harria jarri zuten. "Kutxa hau etorkizunaren hazia da". Kutxa eguneko egunkariak eta ikasleek egindako hainbat lan sartu zituzten, etorkizunean ikastolaren ibilbidearen lekuko izateko. Pedro Lizarraga ikastolaren sortzaileetako batek, Olatz San Martin eta Ekhi Errazkin bi eta bost urteko ikasleek lurperatu zuten kutxa. Ikastola berria 2014-2015 ikasturtean mustu nahi dute.

"Harri honek lurpera eraman dezala orain arteko ibilbidearen lekukotza eta lurpetik zain dezala ikastolaren geroa". Igor Artieda Andra Mari ikastolako Guraso Elkartearen presidentea ikastola berriaren lehenengo harria



Sortzailea, ikasleak eta zuzendaria lehen harria jartzen. ERKUDEN RUIZ BARROSO

"etorkizunaren hazia" dela adierazi zuten. Lau hamarkadetan gorpuztutako "hazia" da "auzolana-rena, konpromisoarena, elkartasunarena, euskal nortasunarena, euskararena eta ama-lurrarena". Irakasleak, ikasleak, gurasoak, herria eta udalak ikastola aurrera eramateko ezinbesteko "zangoak" direla gaineratu zuten Artie-

dak. Hortaz, gobernuaren gabeziak herriak bete dituela esan zuten, baita inguruko udalak ere. Joxi Bakaikoak, Etxarri Aranazko alkateak, ikastolaren ibilbidean hainbat erroka gainditu behar izan dituztela gogoratu zuten. Baina ilusioarekin, alaitasunez eta konfiantzarekin aurrera jarraitu dutela gaineratu zuten.

Haur eta Lehen Hezkuntza

Larunbatean ikastola berriaren lehenengo fasearen harria jarri zuten. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza hartuko duen eraikina Utzubar Txikin egongo da eta 7.000 metro koadroko azalera izango du. Beheko solairuan 3 eta 6 urte bitarteko umeentzako sei gela egongo dira, eta bigarren eta hirugarren solairuan lehen hezkuntzako hamabi gela. Eraikinak soinketa gela, gune estalia eta jantokia izango ditu, baita kirol pista eta espazio berdea ere. Administrazioa eta zuzendaritza eraikinaren alde batean egongo dira.

Aurrekontua 2.600.000 eurokoa da eta obrak Obenasak egingo ditu. Bigarren fasean DBHko eraikina egingo dute. Orduraino DBHko ikasleek Maisuen etxean eraikinean jarraituko dute. Azken fase batean Batxilergo edo Lanbide Heziketarako eraikina egitea aurreikusiko dute.

Mank-eko tasak KPI igoko da

Hilaren 14an egindako bilkuran Sakanako Mankomunitateko batzarrek heldu den urteko prezio publikoak onartu zituen. Mank-eko kide-kerabaki zuten 2014ko tasak Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) pare igotzea, hau da, %0,2.

Altsasu

Seme-alabei etxeko lanetan nola lagundu euskara jakin gabe

Abenduaren 10ean, asteartean, 15:00etan Altsasuko Zelandi ikastetxe publikoan tailerra

Hori posible dela azalduko du Iñaki Eizmendik. Seme-alabak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasten ari diren gurasoei zuzendutako tailerra. Ditzuten kezka uxatu eta ikasketaprosesan laguntzeko bitartekoak eskainiko dizkie. Esaterako, eskolako lan ezaugarri gainean ere ariko da eta haietako batzuk gurasoei egiten dituzten hizkuntza muga gainditzeko ideiak azalduz.



Lizarraga

Hotza lagun San Klementeetan

Lizarragan San Klemente festak ospatu ziren asteburuan. Igandea egun garrantzitsua izan zen Pedro Igoa eta Luzia Lakuntza lizarratarrendako aurtengo omenduak izan baitira. Herritarrek pixkanaka iritsi ziren auzatera gazta eta ardoa dastatzeko eta "miresten" dituzten pertsonak emozioz omenatu zituzten.

Pedro Igoak 80 urte ditu eta artzaina zen, "hori zen gure bizia". Inasan ere urte asko lan

egin zuten. Semea eta alabarekin hartu zuten Lizarragako omenaldia. Luzia Lakuntza sukaldaria zen. Etxarrin urte asko lan egin zuten. Lizarragako sukaldari hoberenatarikoa omen da. Ziza larreak topatzeko usain ona ere badu Lakuntzak. Senideen ondoren jaso zuten omenaldia. Aurrera pozik jarraitzeko indarrak eman zizkioten herritarrek. Bi omenduek plakak jaso ondoren dantzaldiarekin despiditu zuten



Luzia plakarekin eta aldamenean, eserita, Pedro. ERKUDEN RUIZ BARROSO

omenaldia.

Festetan giro ona egon zen. Hotza izan zen oztopo nagusia bai-

na aurre egin zioten. Larunbatean egindako afarian 80 bat lagun bildu ziren.

Arbizu

Bihar, Gazte eguna

Arbizuko Gazte Asanbladak bihar-ko egun osoko egitaraua prestatu du Gazte eguna ospatzeko. Eguna maiatzetik udazkenera pasa zutenetik ospakizuna garai horretan izaten den bosgarren aldia da aurtengo.

Egitaraua

10:00etan Gosaya.
11:00etan Biri-biri finalak!
13:00etan Trikipoteua.
14:00etan Gazte bazkaya.
16:00etan Gazte asanbladen arteko herri kirol ginkana.
18:00etan Ttek Elektrotzaranga.
20:00etan Kontzentrazioa: Utzi Sakanako gazteria Bakean, alde hemendik!
21:00etan Bokatada.
23:00etan Kontzertuak: Patxuko Nice, Derailed eta Kaos Urbano.

Bakaiku

BGAren urteurren ospakizunak hurrengo bi asteburutan

Bakaikuko Gazte Asanbladak 16 urte bete ditu. Hori ospatzeko hurrengo bi asteburuetarako egitaraua prestatu du. Hazi berriak landatzera goaz lelopean antolatutako gazte erakunde bakaikuarra egitaraua.



Egitaraua

>> Azaroak 29, ostirala
19:00etan Yosemite eskalaten hitzaldia. Joseba Arlegi
>> Azaroak 30, larunbata
15:00etatik aurrera Futbito txapelketa mutxiangularra.
22:00etan Bertso afaria: Julio Soto eta Eneko Lazkoz.
>> Abenduak 5, osteguna
22:00etan Ziztadak dokumentala.
>> Abenduak 6, ostirala
18:00etan Klownstrofobia mendian. Zurrumuru antzerki taldea. Gazte eta helduendako.
19:00etan Pintxo lehiaketa.
20:00etan Pintxo dastaketa.
>> Abenduak 7, larunbata
14:00etan Makarronada. Ondoren: Gazte kafea + pastak
16:00etan Mus eta partxis txapelketa.
18:00etan Bakaiku Trivial lehiaketa.
20:00etan Kontzentrazioa.
22:00etan Afaria. Ondoren Ramon Txilindron monologista

Etxarri Aranatz

Iyotiek indartzeko batzar irekia

Abenduaren 11n, asteazkenean, 20:00etan udaletxean

Etxarriko ihote egutegiak bost ospakizun egun ditu: astearte ihotea, haren aurreko igandea eta aurreko hiru ostegunak. Azken hiru egun horietako ospakizunen inguruan eta orokorrean ihoteen inguruan hausnartzeko batzar irekia antolatuko da udal-eko. Etxarriarrak bilera horretara haien proposamenak eramateko eskatu da, guztien artean ihote ospakizunak indartzeko.

HELDU DEN URTEKO DATAK

Gizakunde, otsailak 13; Andrekunde, otsailak 20; Garikunde, otsailak 27; Zalduniyote, martxoak 2; Astearteiyote, martxoak 4

Ergoiena

Udalak animaliak edukitzea arautzen duen ordenantza onartu du

Ergoienan bizi diren etxeko animaliak edukitzeko baldintzak arautzen duen ordenantza onartu du udalak. Ordenantzak bi helburu ditu: alde batetik, pertsonen osasuna eta segurtasuna zaintzea; eta, bestetik, animaliak babestea, kontuan hartuta haien laguntasuna oso garrantzitsua dela pertsona askorendako. Araudiak aipatzen dituen etxeko animaliak dira: txakurrak, katuak, zenbait hegazti eta txori, gida-txakurrak, obrak eta enpresak zaintzeko txakurrak akuarioko eta terrariumeko animaliak, eta udalerrri osoan aplikatuko da.

Altsasu

Chef eskola Intxostiapuntan

Altsasuko Gazte Guneak sukaldaritza eskola antolatuko du 12 urtetik gorako gazteendako. Ilbeltzaren 9tik eta martxoaren 13ra arteko ostegunetan izanen da ikastaroa, 17:30etik 19:30era. Ikastaro praktikoa izanen da eta, beraz, saio bakoitza afari-meriendarekin despidituko dute parte-hartzaileek. Izen emateak 20 euro balio ditu eta ilbeltzaren 6ra arte egin daiteke. Plaza mugatuak dira.

SAKANA

Ikasleek sexu-indarkeria gaitzetsi dute

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Ezabapenerako Nazioarteko egunaren kontura egindako ekitaldian izan da

Aurten estatuan euren bikotekideak edo bikote kide ohiak eraildako 45 emakumeen izenak eta adina esanez bukatu zuten ikasleek sexu-indarkeria gaitzesteko adierazpenaren irakurketa astelehenean. Aralar Mikel Donea institutua, Iñigo Aritza ikastola eta Sagrado Corazon ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleak eta Lanbide Heziketakoak parte hartu dute ekitaldian; 250 bat. Guztiek adierazi zuten ez dutela sexu-indarkeriaren agerpen mota bat bera ere onartzen. Aldi berean, indarkeria jaso edo erailak izan diren emakumeenganako elkartasuna aitortu zuten.

Adierazpena

Ikasleek, hasteko eta behin, ohar-tarazi zuten "Nazio Batuen Erakundeak esanetan sexu-indarkeria giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketarik larrienetako bat" dela. Eta azal-

du zuten ez dela berdinen arteko gatazka bat, ezta emakumeen arazoa soilik, jendarte guztiarena" baizik.

"Indarkeria honen jatorria jendartean errotuta dago. Hau da, gure antolakuntza sistema patriarkalean errotuta". Ikasleek adierazi zuten, "jendartearen arlo guztietan gauzatzen da genero berdintasun eza eta diskriminazioa, baita adin, kultura eta herrialde guztietan gertatzea ere". Emakumeak emakume izate hutsagatik pairatzen duten indarkeria salatu zuten: kalte fisiko, sexual, psikologiko nahiz ekonomikoak ekartzen edo ekar dezakeena, baita mehatxuak eta derri-gortzeak edo emakumeen askatasunaren murrizketak ere.

Ikasleendako argi dago sexu-indarkeria ez dela iraganeko gaitza. "Emakumeen aurkako indarkeriak hamaika aurpegi ditu, eta den-denak, gaur egun ere indarrean dirauen berdintasun-ezaren isla dira". Horren kontra hezkide-



Ikasleek aurten eraildako 45 emakumeak izan zituzten gogoan.

Datuak

Osasunaren Mundu Erakundeak "emakumeenganako indarkeria mundu guztian arazoa da, epidemia gisako proportzioak dituena". Ikasleek azaldu dutenez, munduan 15 urtetik gorako emakumeen %35ak (920 milioi emakume) pairatu du noizbait bere bikotekidearen indarkeria fisikoa edo bikotekideez den norbaitek eragindako sexu-erasoa. Espainiako gazteriar buruzko azken azterlanak (2012. urtekoa)

adierazten du behar izanez gero ia gazteen laurdenak uste duela emakumea dela etxean geratu behar dena adingabeak zaintzen. Ikasleek ziurtatu dutenez, "gazteen artean oraindik ikuspegi sexistak daude genero-rolen inguruan eta hauek indarkeriaren haziak dira". Eta gaineratu dute indarkeria sexista mota berriak (ziberjazarpena edo sexting) sortzen ari direla.

Joan zen urtean estatuan sexu-indarkeria dela medio eraildako 52 emakumeetatik 15ek 30 urte

baino gutxiago zuten. 18 urte baino gazteagoen sexu-delituak %33ko igoera izan dute aurreko urtearekin alderatuta. Nafarroan, 2012an indarkeria matxistagatik aurkeztutako 3 salaketatik 1 emakume gazte batena zen.

Altsasuko Udalak, Emakumeen Bilgunearen eta Kultura zerbitzuen bitartez antolatu da adierazpena. Horren ondoren, lortia kultur gunean *La bicicleta verde* filma ikusteko aukera izandute. Saudi Arabian bizikleta bat eskuratzen duen neska baten istorioa.

tzan oinarritutako hezkuntza sistema aldarrikatu zuten. Bildutakoek "emakumeen eta gizonen

arteko benetako berdintasunaren aldeko apustua egiten dugu, parekidetasunean, baliokidetasunean,

elkarrenganako errespetuan eta tratu onetan oinarritutako harremanak sustatuz".



Sexu indarkeria, lehen mailako arazoa

Eta mundu guztian. "Indarkeria matxista gizarte, politika eta kultura arazoa da, gizonen emakumeengan ezartzen duten botere erlazioa eta zapalketa gauzatzen da". Hori baieztatuz gero, astelehenean, emakumeen aurkako indarkeriaren ezabapenerako nazioarteko egunaren kontura Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak antolatutako kontzentrazioan. 45 bat pertsona bildu ziren.

Bierakundeetako ordezkariak gaineratu zuten sexu-erasoak ez direla kasu isolatuak, ezta bikote erlazio soilak ere. "Emakumeenganako indarkeriak ez du mugarik, egiturazkoa da eta modu asko-

tan azaltzen da; arlo guztietan eta gizarte, politika, kultura, justizia eta ideologia engranaje guztian presente dago". Horren guztiaren ondorioz emakumeen hiritartasuna gauzatzea trabatu, gelditasuna bultzatu eta emakumeen gorputzen gaineko kontrola sustatzen dela adierazi zuten.

Sexu-indarkeriari emandako erantzuna gizarte guztiak eman behar diola nabarmendu zuten. Aldi berean, egiturazko aldaketa sakonak eskatu zituzten, gizonen eta emakumezkoen arteko botere erlazioak ezabatuko dituztenak. Emakumezkoen independentzia eta autonomia bermatu-



Etarrin, Altsasun eta Olatzagutian egin ziren elkarretaratzeak.

ko duten baliabideak ere aldarrikatu zituzten.

Etarrin Aranatzan 30 bat bildu ziren Erasoan aurrean, autode-

fentsa leloa zuen pankartaren atzean. Altsasun, berriz, 45 bat izan ziren elkartu zirenak indarkeria sexistarik ez leloaren atzean.

Parte-hartzailea

Etarrin elkarretaratzean bildutakoek artean hitzak zituzten paperak banatu zituzten. Haiekin jendeak bi panel osatu behar izan zituen. Batean ikusten diren eta ez diren tratu txarren piramideak irudikatu zuten (erailketa goian, beheko mailetan irainak, mehatxuak, baliogabetzea, publizitate, hizkuntza edo umore sexista). Bestean, auto eta defentsa galderi erantzuna eman behar zieten. Esaterako, emakumezkoak euren buruaren jabe izan nahi dutelako, salbatzaile nahi ez dutelako edo defentsa fisikoaz aparte eguneroko erasoan aurrean izan beharreko jarrera (norberaren buruarekiko errespetuan eta auto-estiman oinarrituta).

ZERGATIK EZETZ ESAN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

ORAIN CITROËNEN, SEGURTASUN GEHIAGO, PREZIO HOBEAK.

www.citroen.es

SEGURTASUNA

LIKIDOEN MAILAREN KONTROLA DOAN

(BALAZTAK, ANTIKONGELANTEA, KRISTALGARBITZAILA ETA SERBODIREKZIOA)

%30 DESKONTUA PASTILLETAN, DISKOETAN

ETA INDARGETZAILLETAN

(Aldaketarako piezetan bakarrik aplikatuko da deskontua).

DISTRIBUZIO KIT-A

GASOLINA		DIESELA	
CITROËN C4 1.4i 90cv	CITROËN C4 1.6i 110cv	CITROËN C4 2.0 HDi 138cv	CITROËN C4 1.6 HDi
215€	215€	290€	290€

Gainontzeko modeloetan, distribuzio kitean %30eko deskontua (eskulana ez dago barne).

GURPILAK

NEURRIA 175/65 R14 82T	79,00 € MICHELIN	76,50 € BRIDGESTONE BSWLLT	74,00 € Goetze/Continental
---------------------------	---------------------	-------------------------------	-------------------------------

Bakoitzeke prezioa dena barne: gurpila, muntaia, orekatzea, balbula, ekotasa eta zergak. Gurpilen sailkapen energetikoari buruzko informazioa eska ezazu eta erabili gidatzeko baldintzen arabera egokia.

GAINONTZKO NEURRIETARAKO

%70 EKO DESKONTUA
2. GURPILEAN

Salneurri ofizialen gaineko deskontua iragarritako marketan. Eskulana ez dago barne

PROMOZIOA 2013/10/15etik 2013/12/10 arte.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

SAKANA

Berdintasunerako hezkidetza lanagatik LHko institutua saritua

Sakana Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Publikoko ordezkariak hezkidetza lantzeko egindako lanagatik 3. saria jaso zuten herenegun. Ikastetxea Hezkidetza Lantzen Sarean dago eta berdintasunerako hezkidetza egindako lanaren aitortza jaso du sariarekin. Berdintasunerako hezkidetza bidez ikasleak pertsona gisa nahi dituzte, ez gizon edo emakume gisa. Horretarako, genero bakoitzari jarritako rolak eta estereotipoak hausteko ekimenak sustatzen dira Lanbide Heziketa institutuan.

Ikastetxearen ezaugarriak direla eta berdintasunerako hezkidetza propio bideratutako ekintzak prestatzen dituzte. Eta ikasleen parte hartzea ezinbestekoa jotzen dute. Hala ikasketa buruak ikasgeletako ikasle ordezkariarekin bilzen dira, martxoaren 8an, azaro-



LHko ikasleak Haziaren itzala eskulturaren mustutzean.

aren 25ean edo abenduaren 21ean egin daitezkeen ekimenak zehazteko eta haiek ikaskideen ekarpenak jaso ditzaten. Gainera, Lanbide Heziketan ari diren emakumeen lana nabarmendu eta rol

estereotipoak apurtzeko ibarrek beste ikastetxeetara zabaldu zuten mezua.

Hasierako prestakuntza profesionaleko programan eta prestakuntza zikloetako lehen ikastaro-

Sakanako sariak

Duela 6 urte sartu zen Sakana LHIP Hezkidetza Lantzen Sarean. Orain dela hiru urte ikastetxeak ohorezko aipamena jaso zuen eta hura jasotzeko ekitaldian egun institutu atean dagoen eskultura mustu zuten. Gaur egun soldadurako ikasleek egiten dituzten eskultura horren erreplika txikiak, hezkidetza sariak jasotzen dituztenendako sariak dira.

an dauden ikasleak Etxarriko Emakumearen Arretarako Zentroko hezitzailearekin biltzen dira ikasturtean zehar. Sexu harremanen inguruko zalantzak eta kezak izaten dituzte hizketa-gai. Aurretik, gai horren inguruko inkesta osatu dute ikasleek.

Altsasu

Pertsonen datuak dituzten fitxategiak arautu ditu musika eskolak

Altsasuko Udal Musika Eskolako Patronatuak hala erabakita, datu pertsonalak dituzten fitxategiak arautu eta erregistratu egin ditu. Datu pertsonalak dituzten hiru fitxategi dira musika eskolan dituztenak: administrazio orokorrekoa, eskolako langileen kudeaketarako eta ikasleena. Fitxategi horiek soilik aurreikusitako eginkizunetarako erabili-ko ditu horretarako baimena duten pertsonak.



Bandakoak entseztzen.

Irurtzun

Hartzekodunen batzarrak Inasako bideragarritasun plana aztertzen

600 langileen pentsio funtsa kentzea, hartzekodunek zorraren erdia barkatzea eta komertzializatzaile gisa segitzeari proposatu du Baikapek

Inasako zuzendari Santiago Gonzalez Berganzonesek enpresarendako bideragarritasun plana aurkeztu du. Haren eta Bavaria Industrial Kapital AGen (Baikap) asmoa da Irurtzunge lantegia zabalik mantentzea Portugalgo Cacemeko Portalex enpresan ekoiztutako aluminio profilak saltzeko. Bederatzi langile ariko lirateke lanean.

Baikapek joan den urteko azaroaren 5ean borondatezko hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuen. Orain bi neurri jasotzen dituen bideragarritasun plana aurkeztu du. Alde batetik, gizarte-aurreikuspeneko plana ezabatzea. Inasan hamar urte baino gehiago lan egin duten langileek, edo haien alargunek, jubilatzerakoan enpresatik hilero diru kopu-

ru bat jasotzen dute. Urtero haren balioa handitzen da. 600 bat pertsonak jasotzen dute osagarri hori eta Baikapek hura kentzea eskatu du.

Bestalde, hartzekodunei zorraren erdia barkatzea eskatu die Baikapek. Hartzekodunek onartutako balute, Baikap hartzekodunen lehiaketatik aterako litzateke eta 16 milioi euroko balioa duten Inasako lurrekin eta pabilioiekin geldituko litzateke.

Langileen iritzia

Inasan aritu ziren langileak astelehenean merkataritza-arloko epaitegian eskatu zuten gizarte-aurreikuspeneko plana ez ezabatzeko. "Guk sortutako eskubide bat da. Epaitegiak bidegabekeria hau ez baimentzea espero dugu". BBVA Seguros da gizarte-aurreikuspeneko plana kudeatzen duena eta hura ere salatu dute langileek: "plano konpromisoak bete ahal izate-



Inasako langile ohiek gizarte-aurreikuspeneko plana defendatuko dute.

ko Inasak egin beharreko ordainketak ez dizkio eskatu". Gaineratu dutenez, Baikapek BBVAri 6 milioi euro zor dizkio.

Gaur bilduko da Inasako hartzekodunen batzarra. Langileen ordezkariak azaldu dutenez, luze joko du hartzekodunen inguruan

erabakia hartzea, behar izanez gero langileek euren dena epaitegietan defendatzeko asmoa baitute. Gaineratu dute Portugalgo enpresa ixtear dagoela eta bideragarritasun planak ez duela etorkizunik, gizarte-aurreikuspeneko plana desegin nahi du.

SAKANA

Langabezia behera

Lastaila akaberan iraila despeditzean baino 17 langabe gutxiago zeuden Sakanan, 1.737 guztira. Nafarroako langabeziaren %3,41 ibarrek da (herrialdearen %3,22 populazioa gara). Lan bila dabilzan gehienak, 898, emakumezkoak dira (%51,7; 8 gutxiago). Gainontzeko 839ak gizonezkoak dira (%48,3; 9 gutxiago). Lan bila ari diren gehienak 45 urtetik gorakoak dira.

Langabezia udalerrrika. Lastaila		
Udalerrria	Guztira	
Altsasu	846	-16
Arakil	70	-2
Arbizu	69	-6
Arruazu	2	+1
Bakaiku	17	+2
Ergoiena	8	-2
Etxarri Aranatz	156	-8
Irañeta	11	0
Irurtzun	217	+14
Iturmendi	22	+5
Lakuntza	85	-8
Olatzagutia	120	+4
Uhartea Arakil	58	-2
Urdiain	29	-1
Ziordia	27	+2
Guztira	1.737	-17

Altsasu

Zer egiten duzu etxean?

Galdera horrierantzunez marrazkia osatzeko eskatu zitzaizkien Altsasuko ikastetxeetan ari diren Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei. Etxeko lanen bat egiten zuten edo ez irudikatu behar zuten. 40 neskek eta 48 mutilek egindako marrazkiek osatzen dute Iortia kultur guneko ezkaratzean jarritako erakusketa.

Gainera, ikastetxe bakoitzetik launa marrazki hautatu eta egutegia egin du Altsasuko Bateragarritasunaren aldeko Tokiko Itunak. Ikasleen bidez etxeetara iritsi da dagoeneko. Bestalde, etxeetara txartel bat banatu da. Harekin Iortia kultur gunera joaten direnek egutegia musutruk jasotzeko aukera izanen dute eta, bide batez, handago enera-

kusketa ikusi. Abenduaren 19ra arte dago ikusgai.

Ekimen horren bidez, zaintza-aren etika aintzat hartuz, etxeko egin beharren erantzukidetasunaren aldeko kontzientzia sustatu nahi da. Aukera berdintasunerako gakoa zaintzan dago. Ekimena ere bateragarritasuna ahalbidetzeko lanabesa da.

SAKANA

Barcinak Sakana aipatu zuen UPNren egunean

UPNk igandean alderdiaren eguna ospatu zuen Azkoien. Mila afiliatu eta jarraitzaile inguru bildu ziren ekitaldian. Yolanda Barcina Angulo alderdi buruak Nafarroako ekonomia eta politika egoera izan zituen hizpide. Horretaz aparte, Guardia Zibilak Dereduko 1600 irakasleren pentsaeraren inguruan egindako ikerketa ere hizpide izan zuen. Funtzio publikoaren eta zigor kodea aldatzeko proposamenak egiten dituztela azaldu zuen, "terrorismo ekintzakegin dituztenak" ikastetxeetan eskolarik ez emateko.

Horren harira Barcinak adierazi zuen: "euskal hizkuntza euren interes politikoaren alde manipulatu min gehien egiten dioteneak, euskararen kontra aritzea leporatuko digute. Bildu eta hura adoretzen dutenak dira euskararen etsairik handienak". Barcinak adierazi zuenez, Bilduk enplegua suntsitzea, langabezia gehiago eta hizkuntza arazoengatik ikasleak bereiztea proposatzen du. "Sakanan gertatzen dena ikuste besterik ez dago", gaineratu zuen Barcinak.

SAKANA

Mendinueta eta Barandalla aske

Estrasburgok 197/2006 doktrinariburuzko epaia betearaziz eta fiskaltzaren aldeko iritziarekin Espainiako Auzitegi Nazionalak aginduta, astearte arratsaldean aske gelditu ziren, artean, Jesus Mari Mendinueta Flores eta Bautista Barandalla Iriarte. Biek ere gaixotasun larri eta sendaezina dute. Arbizuarra 1991n espetxeratu zuten eta 2011ko maiatzaren 4rako zuen irteera data. Doktrina aplikatuta espetxetik 2021ean at-

rakolizateke. Etxarriarra 1990ean espetxeratu zuten eta 2009ko garagarriaren 30erako zuen irteera data. Doktrina ezarri eta 2020ra arte luzatuzioten zigorra. Bere gaixotasuna dela eta 2009ko garagarriaren 16an kaleratu zuten eta ordutik, kontrol neurriekin, etxean egon da.

Estrasburgon dagoen Europako Giza Eskubideen auzitegiak Espainiaren helegitea lastailaren 21ean bota zuen atzera. 37

egun geroago daude aske bi sakandarrak. 197/2006 doktrina ezarri zieten 60 euskal presori eta gehienak dagoeneko aske daude. Unai Parot Navarro da espetxean segitzen duenetako bat. 1990ean espetxeratu zuten eta doktrina irteera data zehaztu aurretik ezarri zioten. 197/2006 doktrina ezarri zioten aurreneko presoak izan zen Parot eta bere abizenarekin ere ezagutarazi zuten.



Mendinueta aske gelditu berri gertukoak agurtzen.



Kultura-arteko bitartekari boluntarioak trebatzen

Mank-ek 13 sakandar berri prestatu ditu Magrebeko eta ibarreko kulturen arteko zubi lanak egiteko

Hainbat arlotako profesionalen aldetik eskatu izan zaio Immigrazio Zerbitzuari bitartekoak jartzeko, bereziki Afrika ipar-mendebaldeko, Magrebeko, pertsonekin hartu-emanak errazteko, bai hizkuntza bai kultura arloan. Horrela, duela ia 4 urte Immigrazio Zerbitzuak Bitartekaritza Zerbitzua jarri zuen martxan eta han Magrebeko pertsonak aritzen ziren. Hizkuntza eta kultur bitartekaritza egiten zuten ikastetxe, osasun etxe eta beste hainbat arlotan. "Hasieratik oso baikorki baloratua izan zen zerbitzua, baina zailtasun ekonomikoko egoeratik ezin izan zaio jarraipena eman", azaldu digu immigrazio teknikari Bego Zestau Baraibarrek.

Zerbitzurik ez baina elkar ulertzeko premiak, bi kulturen arteko bitartekaritza premiak segitzen du Sakanan. Bitartekaritza Zerbitzuari jarraipena emateko, boluntarioen aukera aztertu zen eta, horregatik, estreinakoz ikastaroa antolatu du Mank-ek, Magrebdar jatorriko saskandarrak trebatzeko, bi kulturak ezagututa bitartekari izan daitezten.

Ikastaroa

Kultura-arteko bitartekaritza ikastaroan 13 sakandar berri parte hartu dute azaroan. Irurtzunen sei emakumek parte hartu dute ikastaroan. Herenegun bukatu zuten ikastaroa. Altsasun bi emakumezko eta bost gizonetzko trebatu dira kultura-arteko bitartekari izateko. Zazpikoteak gaur despedituko du ikastaroa. Saio praktikoak izan



Sakandarrak Irurtzongo bigarren eskuko azokan. ARTXIBOA

dira eta gehienak Immigrazio Zerbitzuak eman ditu, baina Sakanako beste arloetako profesionalak ere aritu dira.

Batean eta bestean parte hartze handiarekin eta primeran joan dira ikastaroak. Abiapuntua egunerokotasuna izan da eta horrek

makina bat gai lantzeko aukera eman die: aurre-iritziak, estereotipoak, bazterkeria, bitartekotza (definizioa, motak eta esparruak), kultura (definizioa, artekotasuna, aniztasuna, asimilazioa, integrazioa...), bitartekari (ezaugarriak, funtzioak, etika...), datu

babesa, konfidentzialtasuna, euskara edo esparru aniztetako informazioa eta bitartekotza premiak (udalak, osasuna, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak...).

Zestauk azaldu digunez, ikastaroak giro alaian garatu dira. "Parte-hartzaileak asko ikasi izanaren sentipena dute eta euskara ikasteko ikastaroak eskatu dituzte bi taldeek". Gaineratu duenez, "elkarrekiko ditugun aurre-iritzi eta estereotipoei aurre nola egiteari ere arreta jarri diote". Immigrazio Zerbitzuaren berri bazutela ere nabarmendu du Zestauk. Ikastaroak luzeagoak izatea estimatuko luketela gaineratu dute. Esperientzia baikorra eta premia-koa izan dela ziurtatu digu immigrazio teknikariak. Hamahiruak prest daude boluntarioi bitartekari lanak egiteko.

SAKANA

Elikagai bilteta erraldoia

Nafarroako Elikagaien Bankuak Elikagai bilteta erraldoia antolatu du asteburu honetan Nafarroan. Helburua 300.000 kilo elikagai biltzea da, Nafarroako 253 entitate bidez arazoak dituzten 38.000 pertsonari banatzeko. Tartean Altsasun egingen da bilteta, BM, Eroski, Eroski City eta Dia dandatan, ostiralean eta larunbatean.



Diru ekarpenak

Laboural Kutxa (3035 0069 52 0690024878), Rural Kutxa (3008 0001 16 0700279128), eta Caixabank (2100 2173 87 0200346965).

Arruazu

Bi urteko espetxe zigorra Ovejerori

Espainiako Auzitegi Nazionalen Mugitu! Mugimenduko Gorka Ovejerori, Julio Villanuevari eta Ibon Garciari bi urteko espetxe zigorra eta bakoitzari 900 euro inguruko isuna ezarri die Yolanda Barcinari tarta bana botatzeagatik. Lagundu egin zituelako Mikel Alvarezek urte bateko espetxe zigorra eta 300 euro inguruko jasodu. Epailak tar-

takadak atentatutzat jotzen, "indarkeriazko eintza fisiko bat" izan zela eta tartekin Barcina hirutan "kolpatu" zutela.

MIM kideek ez dute espetxean sartu beharko. Helegiteak iragarri ditu haien abokatuak, "egun bakoitzeko espetxe zigorra ezartzen duen sententzia ere onartezina da auzi honetan". Arbazuarrak "pozik"

hartu du espetxean sartu behar ez izatea. Baina Abiadura Handiko Treneko lanak bere horretan jarraitzen dutela eta haiek "benetako atentatua" direla adierazi du. Epaia baloratzerakoan esan du "argi utzi izan dute horrelakorik ez dutela onartuko eta, gu espetxera sartuko ez bagaituzte ere, kartzela hor dagoela ohartarazi nahi izan dute".

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.

Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)

LAKUNTZA. TFN: 948 576 331

FRONTOIKO
TABERNA

948 469 138

ERKUDEN 4 · ALTSASU

PPSOE,
ETB
digitala

Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

PORTUKO okindegia

Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

Aizkora

Munduko aizkolari azkarrena sarituko dute Arbizun

Igandean, 11:30ean, 70 aizkolari baino gehiago lehiatuko dira Arbizun. Ekitaldiak Jose Ignazio Flores "Axio" aizkolaria omendu nahi du

Egur Sportek, Piensos Diva, Sakanako Aizkolari Eskola eta Arbizuko Udalaren laguntzarekin, aizkora proba ikusgarria antolatu du iganderako, 11:30ean, Arbizuko kiroldegian. 2013ko Munduko Aizkolari Txapelketa jokatu da, aizkolari azkarrenaren modalitatean. Guztira 70 aizkolari baino gehiago lehiatuko dira eta proba ikusgarria izanen da. Txapelketa honetan Jose Ignazio Flores "Axio" aizkolari ohiari errekonozimendua egin nahi zaio, omenaldia, eta horrekin batera, sarreretatik jasotakoa Ziordian bizi den aizkolari arbi-zuarra laguntzera bideratuko da. Jakina denez, Axiok herri kirolen alde lan handia egin izan du eta egun gaixotasun larria du.

Kanporaketa sisteman jokatu da txapelketa, enbor bakarrena, 5 kategoriatan: 18 urtez azpikoa, 23 urtez azpikoa, elitea, 50 eta 60 urte arteko beteranoak eta 60 urtetik gorako beteranoak.

Aizkolari guztiak Axiorekin

Egun lehiatzen dauden aizkolari gehienek egon nahi dute Axioren ondoan eta igandean Arbizun izanen dira, aizkolari sakandarrak barne, Munduko Aizkolari Txapelketako aizkolari azkarrenaren lehiatzailea. Julen Larrea III.a izango da txapelketan ariko den aizkolari gazteena, eta Jose Ignazio Orbegozo "Arria II" aizkolari mitikoa beteranoena. Bitarte horretan aizkolari ugari lehiatuko dira Arbizun: Floren Nazabal txapeldun etxarriarra, Jose Mari Olasagasti, Aitzol Atutxa... Gaztetxoan mailan Iker Vicente da faborito nagusia, 23 urtez azpikoetan Ruben Saralegi eta Ander Erasun, elite mailan Floren Nazabal, 50 eta 60 urteko beteranoen artean Jose Mari Olasagasti eta Donato Larretxea, eta 60 urtetik gorakoetan Jose Ignazio Orbegozo "Arria II.a", Jesus Olaizola "Agite", Mikel Mindegia, Leontzio Goñi eta Joaquín Garmendia.

Munduko Aizkolari Txapelketa, aizkolari azkarrenaren modalitatean, 2006an jokatu zen Tolosan azken aldiz, eta Berako Dona-

Euskal Herriko Maila Nagusiko finala jokatu du Nazabalek



Euskal Herriko 6 txapel ditu Floren Nazabalek eta zazpigarrena lortzeko asmoz lehiatuko da abenduaren 8an Elgoibarren. Berarekin batera ondoko aizkolariak ariko dira final handian: Unai Otaño, Iñaki Azurmendi, Jon Rekondo, Aitzol Atutxa eta Jose Mari Olasagasti. Floren Nazabal sasoi beteana dago eta egun gainontzeko aizkolariak baino koska bat gorago dago. Bera da txapela janzteko faborito nagusia, ez bairik gabe. Berriki Nafarroako txapela jantzi zuen, modu ikusgarrian, Jon Rekondori 4 minutu eta 9 segundo aterata. Etxarriarra inoiz baino hobeto dago eta badirudi oraindik mugara ez dela heldu. Dena den, Euskal Herriko finalean arerio gogorragoak ditu etxarriarrak, ustez gehiago estutuko dutenak. Kanporaketa etxarriarra gailendu zen, baina Unai Otañori 34 segundo ateraz. Hain zuzen ere Otaño, Azurmendi eta Rekondo izango dira bere arerio nagusiak finalean. Ea Nafarroako txapelketan eman zuen maila bikaina ematen duen. "Oraintxe bertan sinatuko nuke hori" adierazi zigun etxarriarrak aurreko larunbatean Lakuntzan, Juanjo Lopez Azpilikue-tarekin erakustaldia egin ondoren, irribarrez. Zortetik onena opa diogu etxarriarrari eta ea Euskal Herriko zazpigarren txapel hori Etxarriara datorren.

Resano hirugarrena eta Beltza seigarrena Euskal Herrikoan

Leitzan jokatu zen Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketako finala. Sei aizkolari lehiatu ziren, Iban Resano dorrobarrak eta Goizeder Beltza etxarriarra tartean. 54 ontzako 3 enbor eta 60 ontzako 2 enbor erdibitu behar izan zituzten. Joxemari Telletxeak eta Eneko Otañok lehia estua izan zuten eta azkenean Telletxeak jantzi zuen txapela (12:59), Eneko Otañori 8 segundo atera eta gero (13:07). Iban Resano dorrobarrak osatu zuen podiuma (13:45). Goizeder Beltzak ez zuen esperotako maila eman. Hasieratik nahastu egin zen eta ia enbor guztietan buelta eman behar izan zuen enborra moztu ahal izateko. Azken postuan sailkatu zen (15:34). Mieltxo Mindegia 4.a izan zen (14:00) eta Asier Pellejero 5.a (14:48). Lehen bi postutan sailkatzeagatik Telletxeak eta Otañok 2. mailara igotzea lortu dute.

to Larretxea gailendu zitzaion Laurence O'Toole aizkolari australiarri. Ikusiko dugu igandean nor den munduko azkarrena Arbizun.

Atletismoa

Altsasuko Barricarte herri lasterketa ate joka

Abenduaren 8an jokatu den Alberto Barricarte memorialak Sakanako Kopa erabakiko du

Altsasuko Zubeztia elkarteak Altsasuko Udalaren laguntzarekin antolatutako Herri Lasterketak 33. edizioa beteko du aurten, eta 30. urtea izango da aipatu lasterketak Alberto Barricarte memoriala izena hartu zuela. Proba herrikoi hau, ohi denez, abenduaren 8an jokatu da, Ama Birjina Sortzez Garbiaren egunean, igandearrekin, 11:30ean. Festa eguna da, eta askorendako egutegian gorriz markatutako urteroko zita, San Silvestrearekin batera urteko azken hitzordua izaten baita korrikalarisakandarrendako. Aurreko urtean 221 korrikalarik hartu zuten parte proban, eta Ritxar Fernandezek eta Marisol Ramosek irabazi zuten. Antolakuntzak antzeko parte hartzea espero du.

12,4 km

Herrian barna antolatutako zirkuituari lau buelta eman beharko dizkiote korrikalariek, guztira 12,4



Aurreko urtean hotzari eta euriari egin behar izan zioten aurre korrikalariek.

km osatuz. Goizeko 11:30ean abiatuko da lasterketa, Zubeztia elkar-tearen alboan, eta toki berean des-pedituko da proba.

Izena ematea egunean bertan

Izena ematea dohainik da. Aurretik www.dantzalekusakana.com web gunean egin daiteke edo egunean bertan, lasterketa baino lehen. Bi kategoriatan izanen dira: 18 eta 39 urte arteko emakumeak eta gizonak, eta 40 urtetik gorako emakumeak eta gizonak. Bukarantz Zubeztia elkarteak hartuko du

sari ematea, eta bildutako guztiendako auzate ederra izanen da.

Sakanako atletismo kopako azken lasterketa

Lasterketa honekin, gainera, Sakanako IX. Atletismo Kopa-Lasa Kiro-lak Sariari bukaera emango zaio. Momentuz gizezkoetan Javier Moreno altsasuarra da lehena, Felix Benjumea eta Juantxo Arregi atzetik dituela. Emakumezkoetan Erkuden San Martin etxarriarra da buru, Jone Pelaezen eta Ixa San Martinen aurretik.

Pilota

NAFARROAKO KLUBEN ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Irurtzun finalerdietan

Nafarroako Kluben Arteko Pilota Txapelketako hasierako ligaxakako azken jardunaldia jokatu da asteburuan. Lehen mailan Lakuntzan jokatu zen Irurtzun eta Oberenaren arteko lehia. Banakakoan Armendarizek (Irurtzun) 18-8 irabazi zion Apeztegiari (Oberena) eta finalerdietara sailkatzea lortu zuen. Binakakoan, aldiz, Oberenak zuzenean finalera sailkatzea lortu zuen, Ansak eta Iturriagak Irurtzun taldeko Ongayri eta Mitxelenari 22-19 irabazi eta gero. Oberenan dabilen Ansa altsasuarra partida bikaina egin zuen. Horrela, Irurtzungo Ongayk eta Mitxelenak finalerdia jokatu beharko du Huarte Iruñeko Yoldi-

ren eta Linzoainen kontra.

2. mailan Altsasu-Oberena finala

Bigarren mailan itzuliko partidak jokatu ziren. Oberena B-k eta Irurtzun B-k berdindu egin zuten, banakakoa Oberenak eta binakakoa Irurtzunek irabazi eta gero. Baina tantoen kopuruak Oberenari egin zion mesede, eta, hortaz, Oberenak jokatu du finala Altsasuren kontra, San Migel taldea itzulerako partideta ez baitzen aurkeztu. Oberena eta Altsasuren arteko finala larunbatean jokatu da, Iruñeko Labriten, 2. Mailako 22 urtez azpiko finala erabaki eta gero.




Irurtzun eta Oberenaren arteko lehia. Ansak (aurrean) partida bikaina egin zuen.

Mendia / espeleologia

Urbasa eta Orobe, lurrzpitik

Abenduaren 7an espeleologia proiektioa Altsasuko Iortia Kultur Gunean, 19:00etan

Altsasuko Mendigoizaleak Dantza-leku Sakana taldeak antolatuta, abenduaren 7an espeleologia proiektioa hartuko du Altsasuko Iortia Kultur Gunean, 19:00etan. Igor Lanz, Sergio Hernandez eta Iñaki Oraa espeleologo sakandarrek prestatu duten **Urbasako eta Orobeko sakontasunak** proiektioaz gozatzeko aukera izanen dute hitzordura hurbiltzen direnek. Lanean Basaurra, Orobe, Tximua, Catedral, Mil Uno, Akuandi, Escalonada, Txintxaleze eta Los Cristinos kobazuloetako irudi ikusgarriekin gozatzeko aukera egongo da. Lanz, Hernandez eta Oraa espeleologoek Urbasan eta Oroben egindako espeleologia irteeratan hartutako irudiak dira ikusgai jarriko direnak. Urbasa eta Orobe barrutik eta lurrzpitik ikusteko aukera paregabea, beraz.



Urbasako Akuandi. INTERNET

Pilota



Bakaikoa Nafarroako lau t'erdiko finalera

Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuak Nafarroako Gazteen Mailako Laut'erdiko-Guillermo Mazo Memorialeko finalerdiak hartu zituen asteazkenean: Lehen partidan Lasori (Uhartea) 13-18 irabazi zion Olaizolak (Bortziriak). Eta bigarrenean Zaldueño (San Migel) 7 tantotan utzi zuen Erreka taldean dabilen Joanes Bakaikoa etxarriarrak. Hortaz, finalerako sailkatu da Bakaikoa eta txapela janzteko Bortziriak taldeko Olaizolaren kontra aritu behar du.

Hala ere, ostiralean Olazarren aritu behar du Bakaikoak, laut'erdian. Altuna izanen du arerio.

Motoziklismoa

ESPAINIAKO ABIADURA TXAPELKETA

Ate handitik

Mariñelarenak irabazi zuen Jerezeko lasterketa, Espainiako Abiadura Txapelketako azken proba. Txapelketa Ramosek irabazi badu ere, Mariñelarena ate handitik aterada, Mundialean ariko da hurrengo denboraldian

Jerezeko lasterketa

1.	Alex Mariñelarena	29:51.169
2.	Kafizh Syahrin	0.869ra
3.	Sebastian Porto	3.207

Espainiako Abiadura Txapelketa. Moto 2

1.	Roman Ramos	173 puntu
2.	Alex Mariñelarena	167 puntu
3.	Kafizh Syahrin	155 puntu

Jerezeko hartu zuen Espainiako Abiadura Txapelketako azkeneko proba. Moto 2an Alex Mariñelarenak (Targobank Motorsport, Kalex) motorraren gainean hegan egin zuen eta entrenamendu ofizialetan polea lortu zuen, lasterketan lehen postutik ateratzea, hain zuzen. "Txapelketa lortzea oso zaila ikusten dut, Ramosek 20 puntu ateratzen dizkidalako. Baina Mundialean joan aurretik Espainiako Abiadura Txapelketari garaipen batekin esan nahi diot agur, Targobank Motorsport nire taldearendako" adierazi zuen Mariñelarenak lasterketa hasi baino lehen.

Jaun eta jabe

Esan eta egin. Román Ramos (Ariane) liderrak nahiago izan zuen Espainiako Abiadura Txapelketa ziurtatzea, eta horregatik ez zen aurreko lehia estuan sartu. Baina Mariñelarenak hasieratik aurrea hartu zuen eta sekulako ikuskizuna eman zuen. Lasterketako protagonista nagusia izan zen eta nahiz eta Kafizh Syahrin malasiarra (Kalex) atzean izan, ez zuen arazorik izan Jerezeko proba irabazteko. Syahrinek eta Sebastian Portok osatu zuten podiuma. Roman Ramos liderra 5.a izan zen eta Espainiako Abiadura Txapelketa irabaztea lortu zuen, irurtzundarrari 6 puntu aterata.

Taldeari eskaini zion garaipena

"Oso kontentu nago gaurko garaipenarekin. Gure helburua laster-

keta irabaztea zen eta lortu dugu. Bagenekien txapelketa oso zaila zegoela eta Romanek akats bat egin ezean ez genuela aukerarik. Sekulako ilusioa eman dit denboraldia horrela bukatzea, garaipenarekin. Nire taldeari, Targobank Motorsporti bihotzez eskertu nahi diot urte honetan barna egindako lan guztia. Talde handia da" adierazi zuen irurtzundarrak.

Sari potoloena: Mundialera joatea

Espainiako Abiadura Txapelketa irabazteak pastelari ginda jarriko lioke, baina sari nagusia lortu du Mariñelarenak, inportanteena: hurrengo urtean Munduko Motoziklismo Txapelketan aritzea, Moto 2 mailan, Tech 3 eskuderia frantziarrarekin. Yamaha eskuderia ofizialeko talde satelitea da. Alexek Danny Kent pilotua ordezkatu du eta Marcel Schrotter pilotu alemaniarra izango du taldekide.

Dagoeneko talde berriarekin entrenamendu batzuk eginak ditu. Esaterako, aste honetan astearte, asteazkenean eta ostegunean Almerian egon zen, Tech 3 taldeak denboraldi honetan erabili duen Mistral 610 motorra probatzen. "Kontentu daude. Sentsazioak onak dira. Oraindik taldean egokitzea falta zait, esperientzia hartzea, baina gogoz nago" kontatu digu pilotuak. Abenduan eta ilbeltzean atsedean

Sekulako progresioa



Denboraldi bikaina egin du Mariñelarenak. Espainiako Abiadura Txapelketan 4 garaipen lortu ditu -Montmelón, Albaceten, Nafarroako Zirkuituan eta Jerez- baina Aragoiko Motorlanden 3.a izan zen eta Albaceten 5.a, eta hor egin zion ihes txapelketak. Nolanahi ere, denboraldian barna sekulako progresioa egin du irurtzundarrak, eta Mundialeko 7 probatan parte hartu du. Lehenik eta behin Jerez eta Alemanian aritu zen, bere ohiko taldearekin, Targobank Motorsportekin, gonbidatu moduan. Gero Misanon, Aragoi, Malaysian, Australian eta Japonian lehiatu zen, Blusens Avintia taldearekin, Dani Rivas pilotua ordezkatzeko. Nahiz eta Japoniako Sari Nagusian eskumuturra hautsi eta oraindik osatzen egon -horregatik ezin izan zuen Mundialeko azken proban, Chesten aritu-, igandeko Jerezeko garaipen ikusgarriarekin denboraldiari eta Espainiako Txapelketari agur esan dio pilotu irurtzundarrak. Ospatzeko afari ederra egin zuen igandean pilotuak Targobank Motorsport taldeko kide guztiekin. "Alde batetik pena ematen dit taldea uzteak. 3 urtez nire taldea izan da eta oso harreman estua dut eurekin. Baina esan diet harremanetan jarraituko dudala eta denbora aterako dudala eurei ere laguntzeko. Ni ordezkatzeko beste pilotu bat hartuko dute eta ahal dudanean laguntza ematera jaitziko naiz" adierazi digu Alexek.

hartzeko mundialeko taldeek, erregelamenduari jarraiki ezin dira entrenamendu ofizialak egin. Hortaz, otsailean ekingo dio irurtzundarrak lanari, martxoan abiatuko baita Mundiala, Qatarren. Bitartean atsedena hartuko du, lesionatuta duen eskumuturra osatzeko. "Lehiatzen aritu naizenez oraindik ez da behar bezala osatu. Atsedena ongi etorriko zaio eskumuturrari" adierazi digu barrez.

Kirofanoa

Atzera ere kirofanotik pasako da Mariñelarena, eskuineko besoan "sindrome compartimental" deritzona duelako, motor gidarieki ohi-

koa duten lesioa. Besaurrea gehiegi garatzen zaie, eta nerbioak estututa gelditzen dira. Ondorioz, ezin dituzte behatzak behar bezala erabili. "Lasterketaren batean arazoaren bat izan dut eta ebakuntza egitea beharrezkoa dut" esan digu. Lehenbailehen osatzea nahi du pilotuak, denboraldi berriari ekiten. Zaragozan bizi da baina osatzeko prozesu honetan Irurtzundarra etorriko da. "Badaukat etxera etortzeko gogo. Enduroko motorra badut, eta bueltatxo batzuk emango ditut, forman jarraitzeko" aipatu digu. Gero Mundialaren eromena etorriko zaio. Ibilbide berriari zorte onena opa diogu.



Mariñelarena Tech 3 taldearen Mistral 610 motorra probatzen, aste honetan Almerian. FACEBOOK

Saskibaloia

SAKANAKO

I. SASKIBALOI TOPAKETAK

3. jardunaldia hartuko du Altsasuk

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloitopaketak antolatu ditu, hainbat erakunderen laguntzarekin. Helburua saskibaloia sustatzea da. Aipatu topaketetan premiari mailako taldeak lehiatzen dira, 8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak. Igandean 3. Jardunaldia hartuko du Altsasuko Zelandi kiroldegia.

3. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Zelandin
11:00etan: Putterri - Martinsasti
12:00etan: Balankaleku - Beriain



Iturralde irakurri, gozatu eta hizketatu

Abenduaren 18an, asteazkenean, 9:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da idazlea

Hizpide izanen diren liburuak *Poloniako lautada izoztuak* eta *Rasputin eta San Petersburgoko gauak* dira

Gonbite bikoitza egin dute Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta AEK-k. Joxe Mari Iturralde idazlearen bi liburu proposatu dituzte, haietako bat, edo biak irakurtzeko gonbitea eginez. Haiek irakurri gozatu ondoren, idazlearekin berarekin iritziak trukatzeko aukera izanen da, tolosarra literatur solasaldi batera gonbidatu baitute antolatzaileek. Euskaltegiatiko ikasleei eta gai-nontzeko sakandarrei euskarazko



literaturako bi obra horiek ezagutzeko gonbitea luzatu diete Manketik eta AEK-tik.

Liburuak

Poloniako lautada izoztuak

(Igela, 2001). Erdi mailakoa. Maitasun istorio bat kontatzen du bukaerara arte argituko ez dena. Horrela liburu guztian zehar misterioa mantenduko du. Narrazio berezia da, misteriotsua eta interesgarria, normalean oharkabean pasatzen diren detaile txikiak deskribapenari garrantzi handia ematen diona.



Rasputin eta San Petersburgoko gauak

(Elkar, 2013). Goi mailakoa. Rasputin Errusiako Romanov dinastiaren azken urteetan ospe handiko pertsonaia eztabaidatsua izan zen. Joxemari Iturraldek, hain justu, Errusiako azken tsarraren egunak berregiten ditu eleberri honetan.



Etxarriko Irakurle Taldea Arretxeren azken liburuarekin

Abenduaren 12an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian

Etxarriko Irakurle Taldea heldu den ostegunean elkartuko da Victoriano Huizi udal liburutegian. Jon Arretxeren 19 kamera liburuaren izenarekin hizketa-gai, Patxi Mikeoren gidaritzapean.

Euskaraz irakurtzeko ohitura indartu eta irakurritakoaren gainean beste irakurle batzuekin partekatuz, gozatzeko, sortu da Irakurle Taldea. Parte hartu nahi duenak liburuaren izena eman beharko du.

Irakurketa plana

Abenduaren 12an, 19 kamera, Jon Arretxe.

Ilbeltzaren 30ean, Bilbao-New York-Bilbao, Kirmen Uribe

Martxoaren 13an, Zoaz infernura, Iaztana, Andu Lertxundi.

Maiatzaren 8an, Ezinezko maletak, Juanjo Olasagarre.

Garagarriaren 26an, erabaki gabe (Durangoko azokako berriren bat).

Elortz ibarreko abesbatzak erreperitorio anitza ekarriko du

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Emanaldi dibertigarria eta mugimendu askokoa iragarri dute

Erkudengo Ama Abesbatzak gonbidatuta etorriko dira Altsasura Noain inguruko abeslariak. Biharko prestatu duten programa erlijio-musika, musika espainiarra, euskal folklorea eta Hego eta Ipar Amerikako musikak osatzen dute. Laura Alvarezek zuzenduko du abesbatza. Pianoan Isabel Alvarez ariko da, eta perkusioan Jesus Mari Olleta. Aurreneko biak ere Noaingo musika eskolako irakasleak dira eta eskarmentu handia dute, hainbat abesbatzarekin elkarlanean aritu baitira.

Noain-Elortz ibarreko musika eskolatik sortu zen abesbatza, 1998an. 2002an hartu zuen abesbatzaren zuzendaritza Laura Alvarezek. Ibarreko ekitaldi eta ospakizunetan parte hartzen hasiziren eta handik Nafarroako eta kanpoko beste herrietara egin zuen salto.

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Tartarin Tarascongoa

Egun hauetan Rafael Carasatorren *Barranca Burunda* liburuaren irakurtzen ari naiz, beti bezala, atsegin handiz. Izan ere, 1993an argitaratu bazen ere, ez du gaurkotarik galduta, liburu-dendetan deskatalogaturik ez badago, erostea gomendatzen dizuet.

Adibidez, liburuaren atal batean Arakilgo despopulaturiko herri buri buruz hitz egiten da eta beste batean Sakanako herri guztien oikonomia (etxeen izenak) eta toponimia jasotzen da; baina lan erraldoi honetan gehien nabarmentzen den atala hiztegiare-

na da. Hitzak, esapideak... gai asko biltzen dira liburu honetan; adibidez, tartagileen hiztegia ("aie" esnez, irinaz eta azukrez egindako ahiada, "aparra" esnearen mamia, "artopila"), sukaldariena ("ajoliyue" ospina, gatza eta baratxuria irabiaturik lortzen den saltsa), artzain eta abeltzainena ("firri", "altxerriye" ardiaren ongaria, "azpiontza" ongari legamiatua) eta beste ogibiderena.

Halere, nire mesanotxean liburu bat baino gehiago izan ohi dut. Izan ere, azken aldi honetan Alphonse Daudet idazle frantziarraren Tartarin Tarascongoa izeneko eleberria irakurtzen ari naiz. Bertan, *On Kixo-*

te berri bat balitz bezala, errealtatearen gordintasuna gainditu duen gizon ameslari baten abenturak kontatzen dira. Egilea (eta harekin batera bere eleberriaren protagonista) Flaubert, Goncourt, Guy de Maupassant edo Emile Zola-ren beraren naturalismotik hara tago doa, literatur mugimendu honi darion ikuspegi tragikoa, umorez gainditu nahi baitu edo, gutxienez, saiatu, beti garaile ateratzea lortzen ez badu ere. Giro umoretsu beretan, nik kontatuko dizuet Daudetek berak kontatzen zena. Tartarin ez da etxean gelditzen, Mar-seillara doa, Afrikara, Aljeria alde-

ra, edo behar den lekura ongiaren alde egiteko, jasan ditzakeen zigor larrien beldur izan gabe. Liburuaren pasarte batean Okzitaniako Tolosara hurbiltzen da "Aingeru-guardiyekoeguna"-ren kariaz auzate bat antolatu baitu hango udalak eta ardoa, gazta eta axuria banatu behar omen ditu jendearen artean. Hamaiketako ederra egiteko gogoz doagure Tartarin, baina, a zer desengainua! Hara hurbildu eta haundi-maundiak besterik ez daude bilkura hartan eta ez diote ezta sartzen ere uzten. Berak ez du horregatik amore ematen: dotore-dotore jantzi eta, orain bai,

lortzen du sartzea jaiaren erdian. Halako batean, mahaietan zeuden aie, aparra, artopila, ajoliyue eta besteak hartu eta haizatu egiten dituzte baxalo guztien traje berriak zikinduz eta markesa itxura duen emakume baten musua aparrez betetzen. Hango gizon prestuak blastakoak ematen hasten zaizkio Tartarin arinari, baina honek ez du, halere, bere aitoren seme itxura galtzen eta jipoia estoikoki jasotzen duen bitartean hitz zuhur hauek esaten ditu ozen eta gora: "Gure abereen ekoizpen gozonenak eman dizkizuet gaur zuei; zuek, ordea, egunero ematen dizkizue guri firri, altxerriye eta azpiontza."

Album ilustratu bat sortzeko tailerra

Abenduak 20, ostirala. 17:00etatik 19:00etara Iortia kultur gunean

- 6-10 urte bitarteko haurrendako
- Izen-ematea Iortia kultur gunean (hilaren 17ra arte)

Antzolatzailea:

Mank

Laguntzailea:



Altsasuko Udala



Astearte musikatua

Nafarroako Gobernuak, abenduaren 3an, asteartean, Nafarroaren Eguna ospatzeko makina bat ekitaldi antolatu ditu. Haien artean daude egun horretan bertan, 13:00etan, Nafarroako 75 abesbatzak eta orkestrak beste horrenbeste herritan eskainiko dituzten kontzertuak. Guztiak Nafarroako Ereserkiarekin hasiko dira.

Sakanako musikariek ere parte hartuko dute egitarau horretan. Irurtzango elizan, Berriozarko Elkarrekin abesbatza ariko da. Altsasuko Iortia kultur gunean, berriz, kontzertua eskainiko du Erkudengo Ama abesbatzak. Etxarri Aranazko abesbatza, azkenik, Lekunberriko elizan ariko da.

Bertsolariak Bakaikun

Bakaikuko Gazte Asanbladaren 16. urteurrenaren barruan, bihar bertso-afaria izanen da Bakaikuko elkartean. Julio Soto eta Eneko Lazkoz ariko dira bertsoetan. Etxarriarra aurreko asteburuan Altsasun izan zen Xabier Silveirarekin batera, EHEko bi kideen etxeko atxilo-aldia zela eta antolatutako bertso bazkarian.

Euskaldunak biltzeko ekitaldi sorta Irurtzunen

Abenduaren 3tik ilbeltzaren 4ra izanen dira Euskal Ekitaldiak

Hizkuntzaren erabilera sustatzeko guneak, proposamenak, antolatu eta Euskal Ekitaldiak programa elkartu ditu Aizpea euskara taldeak. Gero eta irurtzundar gehiago dira euskara dakitenak. Ezagutzeak, ordea, ez du erabiltzea esan nahi eta hori nabarmena da Irurtzunen. Horregatik, Aizpeatik euskara dakiten irurtzundarrei (eta inguruko herrietakoei) plaza batzuk eskaini nahi dizkiete, euren hizkuntzan, euskaraz aritu daitezzen.

Alez ale

Pirritzek, Porrotzek eta Marimototsek urtero abenduaren 3a Irurtzunen egonen direla badakite. Eta aurten ere hala izanen da, 17:00etan. Bizipoza ikuskizun berria ekarriko dute Irurtzunera pailazoek. Sarrerak 6 € Martxuetan eta Pikuxarren daude salgai abenduaren 2ra arte. Kiroldegiko

txarteldegia 16:00etan zabalduko da abenduaren 3an.

Euskal Ekitaldietan urtero ez da txangorik falta. Izena ematen duten irurtzundarrek abenduaren 6an Orba ibarreko erromaniakoa ezagutzeko aukera izanen dute. Arkitektura estilo hori ezagutu ondoren Garinoain bazkaltzeko aukera izanen da. 9:00etan abiatuko dira autobus geltokitik. 20 €, bazkaria barne. Izen ematea Pikuxarren edo Iratxon egin daiteke abenduaren 3ra arte.

Erika Lagoma eta Uxue Alberdiren bertsokerarekin gozatzeko aukera izango da, abenduaren 21ean, 21:30ean, Iratxo elkartean. Txartelak 15 €tan eskuratu daitezke. Pikuxarren eta Iratxon eman daiteke izena. Gehienez ere 80 pertsonarendako tokia dago.

Euskal Ekitaldiak Irurtzun Telebistaren 5. saioaren mustutzearekin despedituko dira ilbeltzaren 4an, larunbatean, 20:00etan Pikuxarren. Telebista irurtzundarrak larunbatean bere 4. saioa



Egitaraua

Euskarak 365 egun. Abenduaren hasieran. Noiznahi, nonahi, orain, hemen. Geu izateko euskararen herrian, egizu argazkia euskararen alde.

Bizipoza, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. Abenduaren 3an, asteartean, 17:00etan kiroldegian.

Erromaniakoa Orba ibarrean. Abenduaren 6an, ostiralean, 9:00etan autobus geltokitik.

Bertso-afaria. Erika Lagoma eta Uxue Alberdi. Abenduaren 21ean, larunbatean, 21:30ean Iratxo elkartean.

Irurtzun Telebistaren 5. saioa. Ilbeltzaren 4an, larunbatean, 20:00etan Pikuxarren.

Egunero euskaraz

Abenduaren 3a, asteartea, Euskararen nazioarteko eguna da. Egun horretan euskararen aldeko makinabat adierazpen izaten dira. Aizpea euskara taldeak Euskaltzaleen Topaguneak sustatutako kanpaina bere egin du eta euskaraz 365 egunez aritzeko deia luzatu du. Kanpainako kartelarekin herriko taldeei argazkiak egiten ari zaizkie eta harekin mosaiko bat osatzeko asmoa dute Aizpeakoek. Nahi duenak argazkiak egiteko gonbitea luzatu dute. Euskaraz bitzteko gonbitea egin du Aizpeak.

mustu zuen. Ferien, Pikurock-en, antzerki zikloaren edota San Martin festen berri jaso nahi duenak Irurtzango Euskaraz blogean

(<http://blogak.com/irurtzuneuskaraz>) du ikusgai.

Nazabal, sortze prozesu parte-hartzailean

Zigilua, prozesua eta interakzioa erakusketa abenduaren 1etik 23ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta, domeketan, 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Iztiaz Nazabalek bere margolanak sortzeko estilo bat, zigilu bat opatu zuen aspaldi: leherketak. Koadro baten sortze prozesuan lehen lehenik sentimendu, mantxa eta testuren leherketa egiten du. Eta oihal gaineko zipritin horiek oinarri hartuta sortzen du margolana Nazabalek.

Teknika hori erabiliz Marokoko arkitekturak eta leku bitxiak margotzen hasi zen. "Iritsi zen momentu bat leherketa hori bera bakarrik ederki lan egiten zuena eta obra abstraktuak sortu nituen", azaldu digu margolariak.

Eta handik biluzien eta pasioaren isla diren koadroetara pasa zen. Emakumezkoen posturak, gizonak, bikoteak eta sexua biltzen dituen sail horren zergatiaz galduta, Nazabalek azaldu digu "denok esaten dugun denok oso libre, irekiak garela. Baina, egia esanda, ez gara ausartzen eta ez dugu normaltasunez hitzegiten. Nineu barne. Nabaritu nuen gai hau landu nahi nuela eta, gainera, normaltasunez. Hori nire obran islatu nahi nuen. Artera eramana nahi nuen. Nikuste era sensua eta erotikoa batean".

Teknika horren garapena hiru sail horietan ikusteko aukera izanen da Iortia kultur gunean, baina



Parte hartzeko gonbitea

Oihal handi bat egonen da. Jendearen kolaborazioa eskatzen

Abenduaren 12an, ostegunetan, 23:00etan

dutetan nire sortze prozesuko lehen pauso hori, leherketa, egiteko. Jendeak sentitzen duena egin dezala. Berdin du non bota nahi duen mantxa, nola, testura... Horretarako han material batzuk egonen dira. Joan zaitzete zikintzeko a proposa den arroparekin. Une hori oso garrantzitsua da. Gero niretako ez da batere erraza izanen. Etxean leherketak neurri batean bideratu ditzakedalako. Hemen ez. Jende askok bideratu-

koditu leherketak. Ez dakit zer egiten dudan.

Abenduaren 16tik 22ra, 20:00etatik 22:00etara

Leherketa ikusi arte. Buruari eman beharko diot. Kaleak izanen direla suposatzen dut. Biluziak lantzeko prozesua aldrebes baita. Lehenik ikatz-zirriekin biluziak landu eta ondoren leherketa doa. Zuzenean margotuko dut erakusketa eta jendeak ni lanean ikusteko aukera izanen du. Presioa da niretako baina oso polita ere bada. Irantzu Gonzalez dantzariak sala eta

Abenduaren 1ean, 18:30ean koadro artean dantzan mustutuko du erakusketa. Azalpenak emateko prest izanen da Nazabal aurreko egunetik.

bereziki biluzi eta pasio sailekoak, horiek ez baititu herrian erakutsi. Haiekin batera, sail horietako koadro txikiak ere izanen dira, edozein

poltsikorako eskuragarri direnak. Erakusketako 5. atala bidaietan Nazabalek akuarelaz egindako lanak izanen dira ikusgai.



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 18%	euria: 85%	euria: 30%	euria: 23%	euria: 5%	euria: 13%	euria: 18%
Min: -1 Max: 6	Min: 2 Max: 5	Min: 1 Max: 4	Min: 0 Max: 4	Min: 0 Max: 9	Min: 0 Max: 9	Min: 1 Max: 7

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	6	-3.8	68.8
Altsasu	6	-0.1	69.2
Aralar	0	-7.7	-
Urbasa	2	-4	67.6

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
3	9	17	25

Acrylicolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Azaroko bazkide zozketa

AZAROKO SARIAK:

1- KUKUXUMUXU MAINDIRE LOTE BAT + 2 SARRERA EKAINBERRI + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

2- PIRRI TX ETXARRI SUDADERA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUS-

3- SUKALDEKO LACTURALE ZAPIA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

4- LIBURU LOTE+ LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Agustin Lopez de Zubiria

Bakaikuko gaztain mozte egunaz

Testua eta argazkia: Erkuden Ruiz Barroso



1. Zer zen gaztaina mozte eguna?
Lehen gure bizia zen. Gaztainak eraman behar genituen etxera, guk jateko eta txerriei emateko. Gauza askotarako erabiltzen genuen gaztaina. Data hau ailegatzatzen zen eta esaten zen gaur gaztaina mozte izango zela. Herri guztia joan eta hemen pasatzen genuen, gaztainak bildu arte. Orain ez da lehen bezala. Orain hasi da mugitzen eta inportantea da egitea. Ea hartzen duen indarra hurrengo urteetarako.

2. Zer pisu zuten gaztainek garaiko elikadurarako?
Egunero jaten genituen. Lehendabizikoak egosiak. Gozo zeuden, freskoak zirenean. Lehortzen zirenean zuloan edo danbolinean egiten genituen. Maiatza arte geneuzkan gaztainak. Guk zazpi gurdi atera izan ditugu. Etxean, ganbaran utzi eta ostiral guztietan buelta eman behar zen, hurrengoan berriz ere buelta eta horrela hilabete bat edo. Gaztaina fresko zegoen, baina ez zen gogortzen ezta usteltzen ere. Bertan uzten badugu usteldu egiten da, mugitu egin behar da.

3 Familia bakoitzak hainbat gaztainondo zituen, ez?
Bai. Bakoitzak zeuzkan arbolak markatuta. Orduan, batzuek zeuzkaten 10 gaztainondo, beste batzuek 20 eta beste batzuek 200, denok ere asko. Nik gaztaina asko neuzkan. Arbolak nahastuta zeuden basoan, eta bakoitzak bazekien berea zein zen eta behean jartzen ginen, gaztainak makilekin moztu eta haiek bildu egiten genituen. Aldemeneoak igual bete bete zuten lurra eta haiek ezta ukitu ere. Errespetatzen ginen eta horrela egitean ondo.

4. Zenbat gaztainondo zeuden Bakaikun?
Hori bai ezin dizudala esan. Milaka, ez dakit zenbat egongo ziren. Hirurogei edo lauerogei etortzen ginen gaztainak mozte eta hamar arbola baino gutxiago ez zeuzkan inork eta ehundik asko gora batzuek, beraz, ez dakit zenbat izango ziren.

5. Zer gertatu zen? Zergatik daude gutxiago?
Gaitza sartu zen eta ihartzen hasi ziren. Gainera, gu kasu gutxiago egiten hasi ginen eta gero pagoa, haritza eta sasia etorri ziren eta jan du bastante lekua.

6. Lehen gaztainondoak asko zaintzen zenituzten.
Ikusten bagenuen adar bat zakarra zela edo ihartu behar zela aizkorarekin lepatu esaten dena egiten genuen. Hurrengo urtean kima bat ez bazen ateratzen arbolari gaztaina on baten adarra txertatu egiten genion. Horrela arbola zabal-zabal hazten zen, eta ez altueran. Baina utzi denean asko luzatu dira eta punta ihartzean gaztaina ezin da hartu.

7. Zenbat gaztaina mota daude?
Nik ezagutzen ditut hiru klase. Basoan gehien aurkitzen ziren gaztainak latxak ziren. Hori zen ona. Lehendabizi ateratzen dena eta handiena da. Etxera eramaten genituen eta gero hamar egunera edo saboia, beranduagokoa, zegoen. Orduan saboia hartzeko deia egiten zen. Inurri bat egoten zen bitartean, baina saboia zen azkenekoa. Arbolan ikusten da zer klasekoak diren. Gaztaina botatzen hasten denean latxak ikusten dituzte.

gu. Lehendabizi ateratzen dira. Latxak hartzen arigela inurri ateratzen da, inurriari bi ipurximur eta bat ona dago. Eta gero saboia ikusten dagoian dagoela berde-berde. Itxoin behar da, eta haiek botatzen hasten direnean bildu.

8. Jendea basora etortzen da gaztainen bila?
Asko. Orain, kotxeak daude eta bidea ona denez, egunero etortzen da jendea. Orain gaztainak erortzen hasten direnean egunero pasatzen dira hemendik, herrikoak eta kanpokoak.

9. Zer moduzko urtea izan da gaztainetarako?
Txarra. Lehortu zuen eta bere garaian lora hartu behar zuenean edo hezetasuna zegoenez lore gutxi hartu zuen. Gaztaina mozte egunean uste genuen ez genuela hartu behar bat ere. Baina handi batzuk eta beranduak atera dira, ale onak, gainera.

10. Bakaikuko basoetan fruitu lehor gehiago aurkitu daitezke?
Ez, hemen basoan gaztaina dago. Sagarmina ez dago ia, ez dauzkagu herrian sagarrak eta maizpilak lehen hartzen genituen ere. Orain txoriek jango dute edo ez dakit. Ez diote kasurik egiten.

11. Nola gustatzen zaizkizu zuri gehien?
Niretzako ondo jartzen direnean erreta, ondo erreta, ez gehiegi. Horrela bada gaztaina ona da jateko. Zaila da ongi erretzea, ez da gehiegi erre behar. Hortza onak dituenak gordirik jan ditzake, eta ximeltzen edo lehortzen direnean goxoak dira egosiak.

2014 kilo zorion guztiondako

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

677 450 491 • ARBIZU

HARATEGIA

Lopez de Zubiria

UTABIA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
OTZAILA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
MARTXOA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
APRILA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
MAYATZA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
IRAILA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
ABUZTUA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
UZTAILA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
ABENDUA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
AZAROA	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Carnes de vacuno propia

Etxezpe 14 • 948 568 157 • Iruñea

948 564 275 argi@guaixenet.net

guaixekomunikazioa.blogspot.com.es